## KULTURA SAILA

## 3938

AGINDUA, 2007ko ekainaren 14koa, Kultura sailburuarena, Areeta-Getxoko (Bizkaia) Harino Panadera Lantegia, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, zeinak kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen baitu.

2006ko uztailaren 12an Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpena eman zen. Ebazpen honen bidez Areeta-Getxoko (Bizkaia) Harino Panadera Lantegia, aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2006ko abuztuaren 23ko 160. zenbakia duen EHAAn argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Vicente Gómez de la Cruzek, Olginsa SL konpainiaren ordezkari moduan, alegazio idazki bat aurkeztu zuen, bost txosten teknikotan oinarrituta.

Getxoko udalak ez du alegazio idazkirik aurkeztu, baina Euskal Kultura Ondarearen Zentroari bidali zizkion udal arkitektoaren txosten bat eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuko beste bat.

Aurkeztutako alegazioak analizatu ondoren eta espedientean dauden txostenak ikusirik, alegazioak ez dira onartzen.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Areeta-Getxoko (Bizkaia) Harino Panadera Lantegia Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 3938

ORDEN de 14 de junio de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Fábrica Harino Panadera en Areeta-Getxo (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Fábrica Harino Panadera en Areeta-Getxo (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 12 de julio de 2006, publicada en BOPV n.º 160, de 23 de agosto, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, Vicente Gómez de la Cruz, actuando en representación de la compañía Olginsa, S.L. presenta un escrito de alegaciones, fundamentado en cinco informes técnicos.

El Ayuntamiento de Getxo no presenta un escrito de alegaciones, pero envió al Centro de Patrimonio Cultural Vasco un informe del arquitecto municipal y otro del Servicio de Patrimonio Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia.

Una vez analizadas las alegaciones presentadas y a la vista de los informes obrantes en el expediente, se desestiman las alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

*Primero.–* Inscribir la Fábrica Harino Panadera en Areeta-Getxo (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

*Bigarrena.–* Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

*Hirugarrena.–* Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

*Laugarrena.–* Getxoko Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea, Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

*Bosgarrena.–* Espedienteko interesdunei, Getxoko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari Agindu hau jakinaraztea.

*Seigarrena.–* Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

*Bigarrena.–* Interesdunek, administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau azkenez argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 14a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren eremua.

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurumaria hartzen ditu.

Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: Maximo Agirre, Arellano eta Ibaibide kaleen ardatzak; eta zerbitzuko alboko fatxadaren aldetik funtsaren muga, gutxi gorabehera fatxadarekiko 4 metroko lerro paralelo bat irudikatzen duena.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Harino Panadera lantegiaren ingurumariko ingurumen-balioak

*Segundo.–* Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

*Tercero.–* Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

*Cuarto.–* Instar al Ayuntamiento de Getxo para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

*Quinto.–* Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Getxo, a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Sexto.–* Publicar la presente Orden de inclusión del bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## ANEXO I

Delimitación

a) Ámbito de la delimitación.

La delimitación incluye por un lado, el propio edificio en sí, y por otro el entorno que lo rodea.

Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: por los ejes de las calles Máximo Aguirre, Arellano e Ibaibide y hacia la fachada lateral de servicio por el límite de la propiedad estimándose una línea paralela a la fachada de aproximadamente 4 metros.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos

eta ikus-eremua babestu behar direlako, hiri-ingurune guztiz zehaztutako eta eratutako batean baitago. Inguruaren mugaketa -beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko- bat dator, erabat, kale mugakideek zedarritzen duten esparruarekin; alegia, mugaketak kalearen ardatzari jarraitzen dio, fabrikaren ondo-ondoko eremua babestuz, halako moduz non funtsak zerbitzuko fatxadarantz duen berezko mugarekin bat egiten baitu, bere izaerak berak hartaraturik.

y visuales de Harino Panadera, en un entorno urbano claramente definido y consolidado en el cual está integrada. La delimitación que resulta necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, es coincidente con los límites claros que establecen las calles que lo delimitan, realizándose la delimitación por el eje de la calle para incluir los espacios más inmediatos a la fábrica y dando un límite coincidente con la propiedad hacia la fachada de servicio, por su propia naturaleza.



## II. ERANSKINA

Deskripzioa

Ikutu espresionistak dituen eraikin razionalista bat da, hormigoi armatuzkoa eta 1933an proiektatua. Oinplano angeluzuzena du eta nabarmen agertzen da Maximo Agirre eta Arellano kaleen arteko gurutzegunean. Eraikinak itxura aldakorra du, han-hemen zati bereiziak dituelarik, eta halako doitze eta zatikatze bolumetriko garbi batez hornituta dago, zeinak jatorriz zuen eginkizunari zor baitio, nahiz eta batasunari eusten dion osaketari eta estetikotasunari dagokionez. Estalki laua du. Zati batean erdisotoa, behe-solairua eta lehen solairua ditu; baina atzealdean erdisotoa eta behe-solairua soilik. Kanpoko akaberako materialak homogeneoak dira, eta bistako adreilu gorria da gehien ikusten dena. Balkoi-kareletan bistako adreiluak daude, hodi metaliko zikularrez egindako baranda batez bururatuak. Eraikuntza-elementu zehatzak daude, besteak beste, horma-txapel, leiho-isurki eta krema-koloreko bao-marka harrikarak. Jatorrizko higiezinak aldaketa batzuk izan zituen 1986. urtean.

Maximo Agirre kaleko fatxada nabarmen agertzen da ikusmira orokorrean. Adreiluzko horma-atal bat du oinarri-oinarrian, eta Arellano kalerantz isuri agerikoa du bere norabidean. Ezkerretik hasi eta altuera txiki batean ebakidura zuzen zehatzak ikusten dira abiapuntu gisa. Segidan, aurrerago eta garaiago, lehenengo solairuan hainbat neurritako gorputz makotu irtenak agertzen dira, beti ere higiezineko ertzeranzko isuriarekin. Halako batean, horma-atalak bira egiten du lehenengo solairuan eraketa mako batez eta airean estaltzen du lehenengo solairuan toki horretantxe dagoen kantoi-ebakia. Fatxada honetan bi sarrera nagusi daude, kareharrizko marko edo portada lau batez inguratuta. Sarreretako bat erdialdean dago, eta goiburuan Edificio Santa Ana dio letra handiz; bestea kantoi ebakiaren ertzean dago eta gaur egun ez du inskripziorik. Behe-solairuko ezkerraldean bi leiho horizontal daude, leihoburua eta leiho-isurki bateratua dituztenak. Lehenengo solairuan, ezkerretik hasita, leiho handi batzuk dituen aireko gorputz bat dugu, adreiluzkoa; gero ireki egiten da lerro batean, angeluranzko joera markatzen duen balkoi makotu bat eratuz, eta bao bat duen horma-atal zuzen bat igaro eta gero bao jarrai makotu bat duen aireko zilindroerdi bat ageri da; azkenik, Arellano kalera jotzen duen loturako bihurgunean du amaiera. Azken atal horretan, mainelak dituen leiho jarrai bat dago.

Arellano kalera ematen duen fatxada aurretik deskribatu dugun horren jarraipena da, eta higiezineko ertzaren diseinu bera du. Adreilu gorrizko horma-atalaren kurbatura bukatzen den tokian atal lau bat hasten da, garaiera txikiago batez. Geroago, aireko beste gor-

## ANEXO II

Descripción

Se trata de un edificio racionalista con influencias expresionistas realizado en hormigón armado y proyectado en 1933. El edificio tiene planta rectangular y cuenta con gran presencia en el cruce de las calles Máximo Aguirre y Arellano. Es un edificio que muestra un aspecto cambiante, con partes diferenciadas y con una clara fluidez y fragmentación volumétrica que responden a las necesidades del programa funcional, manteniendo una unidad compositiva y estética. Tiene cubierta plana y presenta semisótano, planta baja y primera en parte de la construcción y sólo semisótano y planta baja en la parte trasera del inmueble. Los materiales de acabado exterior se presentan homogéneos, siendo dominante la presencia del ladrillo caravista rojo. Los antepechos de los balcones se resuelven en ladrillo caravista coronados con barandilla de tubo metálico circular. Hay elementos constructivos puntuales como albardillas, vierteaguas y cercos de vanos de apariencia pétrea en color crema. El inmueble original fue objeto de modificaciones en el año 1986.

La fachada a la calle Máximo Aguirre tiene una presencia visual muy destacada. Consta de un paño de ladrillo como base de la composición y muestra una clara direccionalidad hacia el encuentro con la calle Arellano. La lectura se inicia desde la izquierda, marcando una altura inicial inferior con precisos cortes rectos como punto de arranque, para a continuación aumentar en altura y emerger del citado paño en su primer piso una sucesión de cuerpos curvos volados de diferente dimensión, pero con una direccionalidad hacia la esquina del inmueble y acabar girando literalmente el paño del muro en una forma curva en la planta primera y, cubrir en vuelo el corte en chaflán que se produce en ese mismo punto en la planta baja. En esta fachada actualmente se aprecian dos entradas principales delimitadas por un marco o portada plana de piedra caliza. Una de las entradas se sitúa a media fachada con la inscripción superior en grandes letras que dice Edificio Santa Ana, mientras la otra se ubica en la esquina del inmueble resuelto en chaflán y actualmente no tiene inscripciones. En la planta baja en su lateral izquierdo se ubican dos ventanas horizontales con un dintel y vierteaguas continuo que las unifica. En la planta primera, desde la izquierda, primero se sucede un cuerpo de ladrillo en vuelo con grandes ventanales que pasa a tener forma curva abriéndose y continuando en un balcón curvo que acentúa la dirección hacia el ángulo para posteriormente tras un paño recto con un vano destacar un semicilindro en vuelo con un vano continuo curvo y acabar iniciándose la curvatura de unión hacia la calle Arellano. En este último paño curvo se introduce una ventana continua curva con parteluces.

La fachada a la calle Arellano, es la continuación de la anteriormente descrita con la que comparte el diseño de la esquina del inmueble. La curvatura del paño de ladrillo rojo da paso a un paño recto liso que se destaca con una leve disminución en altura del inmueble.

putz bat dago, balkoiaren eta fatxadako elementu trinkoaren arteko batasunak sortua, lehenago deskribatutakoaren antzekoa, fatxada biak lotzen diten gunerantz jotzen duena. Fatxadak aurrera egiten du garaiera txikiago batez, bi solairuei eutsiz, eta aurrerago, luzera osoaren bi herenak baino lehenxeago, altuera bakarreko itxitura laua bihurtzen da. Fatxadako lehenengo zatiko leihoak era batekoak dira; altuera bakarreko zatian, berriz, leiho jarrai horizontaleko lau sail daude.

Ibaibidera jotzen duen fatxada bistako adreiluz egindako horma-atal simetrikoa da, pinoi moduan eratzen dena hiru garaitako mailakatze batez. Murrua ia itsua da, eta hiru leiho horizontal ditu. Eraikinak, azkenik, inongo kaletara ez baina hiri-bilbearen etxadi hau ixten duen etxebizitza-sailera jotzen duen fatxada bat du, fatxada altuera bakarrekoa, bao horizontalen segida halako bat, eta bertatik sartzen dira ibilgailuak erdisotora arranpala baten bitartez.

Posteriormente un nuevo cuerpo en vuelo formado por la unión balcón-elemento macizo de fachada similar al anteriormente descrito incide en la dirección hacia la curvatura de unión de las dos fachadas. La fachada prosigue con una disminución en altura pero manteniendo dos pisos para posteriormente a algo menos de dos tercios de su longitud pasar a un cerramiento liso de una única altura. Las ventanas en el primer tramo de la fachada son de un tipo, mientras en el tramo de una altura se realizan cuatro series de ventanas continuas horizontales.

La fachada a la calle Ibaibide es un paño simétrico de ladrillo caravista que se resuelve a modo de hastial con un escalonamiento en tres alturas. El muro es predominantemente ciego y en él se centran tres ventanas de desarrollo horizontal. Por último el edificio tiene una fachada que no mira a ninguna calle sino al edificio de viviendas que completa esta manzana de la trama urbana. Esta fachada es de una única altura, es una sucesión de vanos horizontales y en ella se produce el acceso de vehículos al semisótano mediante una rampa.

## 3939

EBAZPENA, 2007ko ekainaren 20koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da 2006. urtean zein diru-kopuru eta nori eman zaion, 2006. urterako toki-mailako erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko eta gazte-politika integralak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 2006ko ekainaren 7ko Aginduaren babesean.

Esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da, horixe xedatzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko eta toki-mailako gazte-politika integralak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen abenduaren 27ko 427/2005 Dekretuaren 8.3 artikuluak, jende guztiak horren berri izan dezan.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Kultura sailburuaren 2006ko ekainaren 7ko Aginduaren babesean 2006. urterako onartu diren diru-laguntzen eta onuradunen zerrenda argitaratzea. Eranskinean daude jasota.

## 3939

RESOLUCIÓN de 20 de junio de 2007, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se hace público el importe finalmente destinado y la relación de subvenciones concedidas durante el año 2006 al amparo de la Orden de 7 de junio de 2006, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la convocatoria de subvenciones para impulsar la red de equipamientos juveniles y el desarrollo de políticas integrales de juventud en el ámbito local correspondiente al año 2006.

Considerando que, a tenor del artículo 8.3 del Decreto 427/2005, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen de otorgamiento de subvenciones a municipios y entidades supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma del País Vasco para impulsar la red de equipamientos juveniles y el desarrollo de políticas integrales de juventud en el ámbito local, la resolución de adjudicación se deberá publicar en el Boletín Oficial del País Vasco, para su general conocimiento.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Hacer pública, según consta en el anexo a la presente, la relación de las entidades beneficiarias y subvenciones concedidas durante el año 2006, al amparo de la Orden de la Consejera de Cultura de 7 de junio de 2006.